

KUDEAKETA POLITIKA

Tolosako Inmakulada Lanbide Ikastolak (TILI) kalitateko ISO 9001:2015, Ingurumen arloko ISO 14001:2015 eta Lan Osasun eta Prebentzioaren inguruko ISO 45001: 2018 arauen betekizunei erantzuten dien Kudeaketa Sistema Integrala (KSI) ezarrita dauzka.

TILIk bezeroekiko, legezko, arauzko eta guk ezarritako betekizunak betetzeko konpromisoa hartzen du, bai eta bere Kudeaketa Sistema Integrala etengabeko hobekuntza garatzeko ardura ere.

1- Bezeroen (ikasleak eta enpresak) asetzemaita eta guganako konfiantza areagotu nahi dugu, eskaintako zerbitzuen eta produktuen kalitatea hobetuz, ekintzailetasuna sustatuz, gure inguruko enprekin garatuz eta egungo hezkuntza sistemak bultzatzen dituen metodologia aktiboak gure ohiko jardueran txertatuz.

2- Ingurumenaren zainketa eta babesa lantzeko neurriak hartzen ditugu eta gure bezeroak inplikatzeko ditugu. Jardueraren ondoriozko kontsumo energetikoa gutxitzea eta hondakinak murriztea helburu izanik, autohornikuntza eta berrerabilpenaren aldeko apustua egiten dugu arlo guztietan.

3- Gure langileen Lan Osasuna eta Prebentzioa ditugu helburutzat. Gure langileen osasuna zaintzeko, eta lan baldintza egokiak eta seguruak izateko, lan arriskuak ezabatu edota gutxitzeko konpromiso garbia dugu.

4- KSIren diseinu eta garapenean, eta dagozkion arloetako dokumentuen onarpenean, TILiko langileen parte hartzea eta kontsulta bermatzen ditugu.

TILiko Zuzendari Taldeak hartzen dituen konpromiso horiek egoki garatzeko, TILIk beraiengan konfiantza osoa duen giza talde batekin lan egiten du eta inguruko enpresak (Osasun zentroak eta Zerbitzu enpresak) aliantzat hartzen ditu.

Gure ahalegin guztiak datozen eremuetan biltzen ditugu:

- o Gure ikaslea bere ikaste prozesuko jabe eta protagonista bihurtu nahi dugu eta profesional aditua izateaz gain, pertsona ekintzailea. Ikerkuntzarako grinaz eta gizartearekin konprometitu izan dadin lan egiten dugu.
- o Gure ikaslearengan inguruarekiko jokabide zuzenak landu nahi ditugu bere portaerak eta sentsibilizazioak enpresaren inguruarekiko konpromisoa islatu dezan.

- o Lehiakorrek izan nahi dugu gure inguruko Lanbide ikastetxeen artean. Gure gizarteari eskaini nahi diogun kalitatezko zerbitzua gero gizartearen beraren onurarako izango dela ziurtatu nahi dugu.
- o Eskaintzen ditugun zerbitzuak eta produktuak, ahalegin kolektibo baten emaitzak direnez, kolektibo hori osatzen duten pertsonen osasunaren eta lan arriskuen prebentzioaren zainketa lehenesten dugu eta gure langileengan sentsibilizazioa landuz.

Kudeaketa politika honek agertzen den tratamendua izango duenaren konpromisoa hartzen dugu TILI'ko Zuzendaritza Taldea osatzen dugun taldekideek.

Data: 2022ko irailean Berrikusketa zkia: 10	Zuzendaritza Taldea: Ana Monge
--	--------------------------------

